

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ASPARRENEKO UDALA

#### Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko 2021eko zerga ordaintzea

2021eko martxoaren 8tik maiatzaren 8ra arteko egun baliodunetan (biak barne) prest egongo dira, borondatezko epean ordaintzeko, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari dagozkion 2021eko ordainagiriak.

Zerga hori ordaindu behar dutenek bulego orduetan egin ahal izango dute ordainketa, udaleko diruzaintzan, aipatutako epe horretan. Era berean, ordainketa dirutan egin daiteke, udalak Kutxabank, Euskadiko Kutxa, Caixan eta Ipar Kutxan dituen kontuetakoren batean. Era berean, zergadunei gogorarazten zaie ordainketa banku edo aurrezki kutxetan helbideratu ahal izango dutela. Aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek, helbideratzeko kontua mantentzen badute, ez dute inolako izapiderik egin beharko, udala arduratuko baita ordainketa izapidetzeaz.

Aipatutako epea amaitzean, automatikoki abiatuko da betearazte aldia, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak xedatutakoaren arabera, eta dagozkion errekaratu eta berandutze interesak kobratuko dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Araia, 2021eko otsailaren 18a

*Behin-behineko Alkatea*  
**INMACULADA ALBIZU FUENTES**